

HISTORIA. Luzaideko eta ingurueta hainbat gertakari biltzen ditu Elkar argitaletxeak plazaratu duen liburuak

‘Luzaiden gaindi’, herri baten memoria atxikitzeko lekukotasuna

Angel Aintziburu eta Jean Baptiste Etxarrenek elkarrekin burutu dute ikerketa lana

Hartzea Lopez Arana | BAIONA

«Euskal Herriko edozein herri ttipira heldu eta pentsatzen dugun lehen gauza da toki horretan deus gutti gertatu dela. Memoriak itzalia iduri du. Guk Luzaidekoa berpiztu dugu». Hitz horiekin laburbildu dute Angel Aintziburu eta Jean-Baptiste Etxarrenek *Luzaiden gaindi* berrikitan atera duten liburua.

Liburu hau Elkarlanean argitaletxeak publikatu du Aturri kolekzioan, hau da Iparraldeko gaiak tratatzen dituen sailean. Gexan Arfaro argitaletxeak arduradunak azaldu duenez, liburu hau egiteko mamia publikatua izan dena baino askoz luzeagoa zen. Testuen hautaketa egin eta Garaziko euskalkia atxiki dute obran, aditzak baturara pasatuz.

Herriko historia laburbildurik

Angel Aintziburu Luzaiden sortua da 1930ean, eta kulturzale eta bertsozalea da. Euskal irrati nafartar batzuentzat kronikak egiten ditu erregularki, «lehen-go denborak eta istorioak» titulupean. Jean-Baptiste Etxarren Lohigorri Uharte Garazikoa da, eta Euskaltzaindiko laguntzaila izateaz gain, iadanik lau liburu publikatuak ditu euskaraz eta frantsesez. *Luzaiden gaindi* liburua egiteko ideia Piarres Lafitte idazleak eman ziela aitortu du azken honek. «Arnegiz balitake liburuxka baten gaia, bilduz han-hemenka barreaturik dauden ixtorio eta xehetasu-



Gertakari ezezagun eta jakingarri ugari biltzen du *Luzaiden gaindi* liburuak.

nak». Angel Aintzibururekin lana partekatu eta biek Luzaideko artxiboetan eta elkarrizketen bidez herriaren historia arakatu dute. Lanbideak, etxeen izenak edo anekdotak irakur daitezke, besteak beste, kapitulu laburretan, eta Luzaidetik abiatuz Donibane Garaziraino joan dira azken mende hauetan izandako gertakarien kontakizunak biltzen. Ibañetan gaindi ere, Auritze eta Aezkoan barna ibili dira dokumentuak eta ikusmoldeak biltzen.

Muga hunkitzen duten herriek gertakari franko garatu dituztela azpimarratu dute liburuaren egileek. Iraganbide una izanik hainbat gatazka bizi izan

ANGEL AINTZIBURU

Liburuaren egileetako bat

«Nork ez du behar maitatu lurralde hau, bere mendi eta toki ederrekin? Uros bizitzeko deusen eskasik ez dugu hemen»

ditu Luzaidek administratiboki eta ekonomikoki. Karlomagoren armadatik hasi, karlistadekin eta Espainiako gerra zibilarekin segituz, Luzaidek paper garrantzitsua bete zuen historian zehar. XX. mendeko

mundu gerrek kontrol eta ihes gune bilakatu zuten lekua. Gaur egun 450 biztanle dituen herri hau maite dutelako idatzi dute liburuak. «Lekuko kulturari lotua naiz, eta iduri zait herri bakoitzean ondarea atxikitze berak historia bildu behar dela. Dantza, pilota, kantua edo lehengo birla jokoa maite ditut, eta oroz gainetik gure mintzaira, honen bidez baitutugu azkar atxikitzen gure erroak eta honek baikaitu moldatzen adimenduak», azpimarratu du Angel Aintziburuk.

Santiagoko erromesen bide tradizionala izanki Luzaidek ere ostatu ugari ireki zituen, gaur egun bentak bilakatu direnak.

Literaturako webgunea aurkeztuko du gaur, Donostian, EGUNKARIAK

Erredakzioa | DONOSTIA

Euskal literaturaren inguruko webgunea aurkeztuko du gaur, arratseko 19:30ean, EUSKALDUNON EGUNKARIAK, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Iñaki Uria EGUNKARIAKO kontseilari ordezkariak, Martxelo Otamendi zuzendariak, Kepa Sarasola webaren diseinatzaileak eta Juan Luis Zabala Kultura arloko erredaktoreak hartuko dute parte aurkezpenean, eta literaturaren munduko pertsona ezagun ugari bilduko du ekitaldiak.

Euskal literaturaren inguruko hainbat eskaintza berri du, gaurtik aurrera, EGUNKARIAren webgunea www.egunkaria.com/literatura helbidean: 47 euskal idazleren fitxa bana; 1999, 2000 eta 2001ean euskaraz sortu eta argitaratutako literatura arloko liburuaren zerrenda, EGUNKARIAN liburuari buruz egindako aipamen eta kritikekin lotua; euskal literaturarekin zerikusia duten era askotako loturak; debaterako saila; literatur albiste-gia; *Zeu idazle* atala...

Galtzagorri Elkartek, Gipuzkoako Aldundiak eta EGUNKARIAK eratutako Idazle Gaztea literatur lehiaketako lehen fasean hautatutako lanak irakurri eta bozkatzeko aukera ere bada webgunean.



Bihar

UNI

Egunkaria

Ikasle eragileekin mahai-inguruan:
«Titulu erabilgaitzak ekoizteko fabrika bihurtu dute EHU»
«Berrito lortu behar dugu ikasleak izatea eskolako eragile»
Informatika: eskanerrak aukeratzeko irizpideez berbetan

...zure independentzia

